

GOBERNU BATZARRA

2016. 11. 07

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren zazpian, goizeko
Olatz Peon Ormazabal	08:00etan Gobernu Batzarra bildu da
Zinegotziak:	ohizko bilera egiteko. Mahai-burua
Patxi Amantegi Zubiria	alkatea izan da eta alboko zinegotziak
Nerea Letamendia Belloso	agertu dira, eguneko gai zerrendan
Iñigo Alonso Sarasibar	agertzen diren puntuak tratatzeko.
Idazkaria:	1.- Aurreko akta onartzea.
Jose Luis Unanue Ugalde	2.- Ilarki elkargoak aurkeztutako faktura.
Kontuhartzailea:	3.- Iurramendi Egoitza. Urriako faktura.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4.- Tolosako Mankomunitateari egin
	beharreko ekarpen ekonomikoa 2016ko
	iraileko faktura.
	5.- Tolosako Bizikidetza Foroaren 2016ko
	dirulaguntzaren %50eko aurrerapena
	ordaintzeko proposamena.
	6.- Etorकिन euskara errefortzua
	ikastetxeetan. 15-16 ikasturtearen
	likidazioa.
	7.- Etorकिन euskara errefortzua
	ikastetxeetan. 16-17 ikasturteko
	hitzarmena.
	8.- 35/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko urriaren 24an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ilarki elkargoak aurkeztutako faktura.

Ilarki Elkargorekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 65.748,78 euroko faktura onartzea, urriako Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

4.- Iurramendi Egoitza. Urriako faktura.

Iurreamendi egoitzak maiatzako kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea maiatzako kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **24.113,92** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 884,12 €

Elbarrien defizita: 23.229,80 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa 2016ko iraileko faktura.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarri, eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko urtarrilaren 18an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non, ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo faktura aurkeztu du:

Fra. 2016 iraila 115.882,49

Aipatutako kontuan izanik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura onartzea:

Fra. 2016 iraila 115.882,49

BIGARRENA: Erabakiaren berri kontuhartzaitzari ematea.

5.- Tolosako Bizikidetza Foroaren 2016ko dirulaguntzaren %50eko aurrerapena ordaintzeko proposamena.

Gaia hurrengo Batzorderako uzten da Kontuhartzaileak hala eskatuta.

6.- Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan. 15-16 ikasturtearen likidazioa.

Tolosako Udalaren laguntzarekin euskarazko errefortzu eskolak ematen dira ikasle etorkinentzat Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Laskorain ikastolan, Orixe institutuan eta Hirukide ikastetxean.

15-16 ikasturtean, Nerea Egibar irakaslea aritu da ematen errefortzu eskola horiek aipatutako hiru ikastetxeetan, eta ematen dituen zerbitzu horiek fakturatu dizkie hilerok, Tolosako Udalak eta hiru ikastetxeek egindako proposamenari jarraituz. Proposamen haren arabera, Tolosako Udalak diru laguntza bat emango lieke proiektu horretan ari diren ikastetxeei, kontuan hartuta errefortzu eskolak ematen dituen irakasleak ikastetxeei, zerbitzu hori emateagatik, aurkeztutako fakturak.

Horrela, urte hasieran, ikastetxeek aurkeztu zituzten 15-16 ikasturteko irail, urri, azaro eta abenduan euskarazko errefortzu eskolak emateagatik egindako gastuei zegozkien fakturak (Nerea Egibar irakaslearenak), eta Tolosako Udalarekin egina duten hitzarmenaren arabera, Udalak 8.058 euroko diru laguntza eman zien 2015eko aurrekontuaren kargura.

Amaituta 2015-16 ikasturtea, aipameneko hiru ikastetxeek urtarril eta ekaina bitarteko agiriak aurkeztu dituzte, ikasturteko bigarren atalari dagokion diru laguntza eskuratzeko hitzarmenaren arabera.

Kontuan hartuz, batetik, Hirukide ikastetxeak, Orixe institutuak eta Laskorain ikastolak aurkeztutako dokumentazioa eta, bestetik, ikastetxe horiekin Udalak egindako hitzarmena, euskarazko errefortzu eskolak emateko.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak proposatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipameneko ikastetxeei diru laguntza hauek ematea, 2015-16 ikasturteko urtarriletik ekainera bitartean eman dituzten euskarazko errefortzu eskolengatik:

Hirukide ikastetxeari.....	4.266 euro
Laskorain ikastetxeari.....	4.266 euro
Orixeko institutuari.....	4.266 euro

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzear, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta aipaturako ikastetxeei.

7.- Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan. 16-17 ikasturteko hitzarmena.

Tolosako Udalaren laguntzarekin euskarazko errefortzu eskolak ematen dirá ikasle etorkinentzat Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Laskorain ikastolan, Orixeko institutuan eta Hirukide ikastetxean.

Helburu horrekin, 2016ko udal aurrekontuan 21.330 euro dauzka izendatuta Tolosako Udalak.

Batzordeak ontzat jotzen du plangintza eta, 2016-17 ikasturteari begira, egitasmoarekin jarraitzearen alde agertu dira batzordekideak.

Hori dela eta, 16-17 ikasturtearen lehenbiziko atalerako, hau da, 2016ko irailetik abendura bitarteko errefortzu eskolen diru laguntza 8.532 eurora helduko litzateke (ikastetxe bakoitzari gehienez 2.844 euro). Ikasturteko bigarren atala, berriz, 2017ko udal aurrekontuetan aurrikusi beharko litzateke.

Helburu horrekin, Tolosako DBHko ikastetxe bakoitzarekin (Hirukide, Laskorain eta Orixeko) hitzarmen bat egingo litzateke.

Beraz, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak proposatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hirukide, Laskorain eta Orixeko ikastetxeekin hitzarmena sinatzea, 2016-2017 ikasturtean euskarazko errefortzu eskolak emateko DBHko ikasle etorkinei.

BIGARRENA.- 2016-2017 ikasturteko iraila eta abendua bitarteko atalari dagokion diru laguntzarako 8.532 euro onartzea eta ikastetxei ordaintzea, bakoitzarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzear, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta aipaturako ikastetxeei.

8.-35/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **35/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **80.295,69 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **35/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde